Bizkaia
Egunkaria euskaldunon
EGUAZTENA
2002ko zezeilaren 13a

BILBO. Ekorropa dendea



XOUSE SIMAL

Gizarteratze ametsak jazten dituen arropak

Berohi irabazteko asmo bako kooperatibeak, Caritas eta Rezikletarekin alkarlanean, Ekorropa dendea zabaldu eban atzo Bilboko Egaña kalean. Dendan salduko dituen bigarren eskuko arropek, modaren zurrunbilo zorotik kanpo edo merkealdiko lasterketa sukartsuetatik urrun, 45 urtetik gorako lanbakoen, etorkinen eta emakume baztertuen gizarteratze ametsak jantzi eta berotuko ditue.

10.000 bat janzki inguru ipinten ditue salgai hilero, oso merke, lurralde osoan. Kooperatibeak, ganera, ingurumena errespetetako kompromisoan, enpleguak sortzeko erabilten ditu dendetan lortutako etekinak.

8

ABANTO. Urigintzea

Eusko Jaurlaritzak Bodovalle meategi ganeko lurrak jausi daitekezala dino

Bodovalleko meategiaren ganean dagozan lurren eremu baten erabilerea mugatzeko eta, beste eremu baten, lurrak hondoratzeko dagoen arriskuak izten dituen erabilerak baino ez egiteko erabagia jakinarazo deutse Eusko Jaurlaritzak lur horreetan eskumena daukien administrazinoei.

Batasunak prentsaurrekoan mahai ganean ipini ebanez, azkenengo urteetan Bodovalle meategian beteten zituen lurren ganean izan diran hondoratzeengaitik martxan ipini arazo eben azterketatik atara dau erabagi hori Jaurlaritzak.

Abantoko lurren azpian egoan Bodovalle meategian urteetan egin dan neurri bako ustiapenen erruagaitik herriko lur eremu handia, ia 600.000 metro koadro, hain zuzen be, uriginza proietuak eta azpiegitura proiektuak garatzeko ez dabela balio salatu eben Batasunekoek.

Eusko jaurlaritzak atara dauen ebatzi horrek eragin zuzena eukiko dau, Batasunatik adierazo dabenez, Gallartako saihesbidearen proiektuan eta Abantoko Campillo poligonoaren proiektuan be.

Gallartako saihesbidea Arboledan eregiko daben golf zelaiagaz lotuta dagoen proiektua da. Orain golf zelaia egingo dan lekura doan bidea ez da bape egokia azpiegitura barriek eskatzen dabenari eutsi ahal izateko. Hori dala eta, harako bide egokiagoak sortzea zan proiektu horren helburua. Campilloko poligonora, ostera, gas eta ur hodi gehiago eroan gura ditue. Poligonoko azpiegiturea hobetzeko behar horreek geldi dagoz orain, Batasunekoek esandakoaren arabera.

2

BILBO

Miribillako geltokia egiteko 9.09 milioi euroko inbertsinoa egingo dabe

Miribillan Renfeko tren geltokia egiteko 9,09 milioi euroko inbertsinoa egingo dau Bilbao Ria 2000k. Egitasmoa gauzatzeko txostena idazten jarraitzea eta auzune horretako Konpentsazino Batzordearekin izan diran negoziazinoak bukatutzat emotea erabagi eban atzo erakunde horretako administrazino kontseiluak. Iñaki Azkuna Bilboko alkateak esan ebanez, «Torreurizar auzoan eta Larraskitu etorbidean iada bizi diranak batuta, 20.000 biztanle hartuko ditu, hurrengo bost urteetan, Miribilla auzuneak».

3

DURANGO

Sartu fundazinoak bulego barria hartu dau trebakuntzea eta enplegua bultzateko

Formazino eta enplegu alorrean behar egiten dauen Sartu Federazinoak egoitza barria inaguratu barri dau Durangon. Halandabe, badira hilabete bi bulego horretan diharduela. Izan be, Kanpantorrostetako Etxe Soziala laga eta jarraian ipini eben martxan egoitza barria, Murueta Torre auzoan. Orain arte moduan herritarrak gizarteratu eta beharra topetako laguntzea emoten jarraituko dabe bulegoan, Sartuko arduradunek azaldu dabenez. Bide horretatik, bulego barriagaz zerbitzu hobea emotea itxaroten dabe.

7